



IRIZPEN ZK.: D21-011

IRIZPENA, METRO BILBAO SA SOZIETATEAK ESKATUTA HASITAKO POLIZIA-JARDUNETAN JASOTAKO DATU PERTSONALAK SOZIETATE HORRI KOMUNIKATZEAREN GAINEKOA

AURREKARIAK

LEHENENGO: Bizkaiko Garraio Partzuergoko zuzendari kudeatzaileak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaridazkian kontsultaren xedea honela azaltzen da, laburbilduta:

«Jakitea ea Bizkaiko Garraio Partzuergoak osorik partaidetzen duen Metro Bilbao SA sozietatea, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bitarteko propioa den hori, legitimatuta al dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei –Ertzaintzari eta Udaltzaingoari– eskatzeko kidego horiek identifikatutako pertsonen datu pertsonalak, MBk polizia horien jarduketa eskatu duenean bere instalazioetan egindako arau-hauste administratibo, penal edo zibilengatik, pertsona horien aurka administrazio-bidean edo zigor-bidean salaketak edo erreklamazio zibilak jartze aldera.»

BIGARREN: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

Beraz, araudi hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetzen zaio ea METRO BILBAO SA (aurrerantzean MB) legitimatuta al dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei –Ertzaintzari eta Udaltzaingoari– eskatzeko kidego horiek identifikatutako pertsonen datu pertsonalak, MBk polizia horien jarduketa eskatu duenean bere instalazioetan egindako arau-hauste administratibo, penal edo zibilengatik, pertsona horien aurka administrazio-bidean edo zigor-bidean salaketak edo erreklamazio zibilak jartze aldera.

Bulegoak erantzuna emango dio egindako kontsultari, datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik (2/2004 Legearen 17.1 artikulua); bide horretatik, egin nahi den datu-tratamendurako lege-gaikuntzarik dagoen aztertuko du.



Kontsultan ez da zehazten zein datu pertsonal eskatzen zaizkion Udaltzaingoiari edo Ertzaintzari; aitzitik, kontsultatik ondorioztatzen denez, kasu bakoitzean lortu nahi den helbururako beharrezkoak diren identifikazio-datuak izango lirateke.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamendua) 4.1 artikuluan jasota dago datu pertsonalen definizioa. Hona hemen definizioa:

«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Bestalde, Udaltzaingoak edo Ertzaintzak, METRO BILBAOren instalazioetan egindako polizia-jardunetan pertsona jakinei buruzko informazioa eskatzean nahiz, egokia izanez gero, pertsona horien informazioa hirugarrenei komunikatzean, datu pertsonalen tratamendua egiten du, Erregelamendu Orokorren 4.2) artikulua definitzen duenez:

«datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Erregelamendu Orokorra 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan dagoen legitimatuta datu pertsonalen tratamendua:

- a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.*
- b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.*
- c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.*
- d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.*
- e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.*
- f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoei erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarrizko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean. 1. paragrafoko f) letran xedatutakoa ez zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari”.*



Beraz, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du lehenago transkribatu den Erregelamendu Orokorraren 6.1. artikuluko kausetariko bat dela medio.

Eskatutako lagapena legitimatzen duten kausen artean lehenengoa interesdunaren adostasuna da eta, kasu honetan, antza denez, ezin da hori aplikatu. Horregatik, zehaztu beharko da tratamendua legitimatzen duten gainerako kausetariko bat dagoen ala ez.

Kontsultan hainbat kasu planteatzen dira, eta kasu horietan guztietan hau gertatzen da: METRO BILBAOk eskatzen du udaltzaingoak edo Ertzaintzak esku har dezala, metro-zerbitzuaren erabiltzaile izanik legezkotasunaren aurkako jokabideak eduki dituzten pertsonak identifikatzeko, pertsona horiek beren burua ez dutenean borondatez identifikatu METRO BILBAOko langileen aurrean.

II

Metroaren erabiltzaileen jokabideen artetik administrazioko arau-hauste izan daitezkeenei buruz kontsultan planteatzen diren auziei erantzun ahal izateko, lehenengoz trenbide-sektorea eta lurreko garraioak arautzen dituen legeriara jo behar dugu.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak kontsultan honako hau azaltzen digu:

«Bizkaiko Garraio Partzuergoa Metro Bilbao SA (MB) sozietatearen bitartez Bilboko hiri trenbidea (1. eta 2. lineak) ustiatzen eta kudeatzen duen toki-erakundea da (abenduaren 30eko 44/1975 Legearen, “Bizkaiko Garraio Partzuergoa” sortzekoaren 5. artikulua araber, MB Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bitarteko propioa da). MB Bizkaiko Garraio Partzuergoa osorik partaidetzen duen sozietatea da.

Bilboko hiri trenbidearen kudeaketa eta ustiaketa burutzeko, MBk, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bitarteko propioa den aldetik, trenbide-azpiegitura horretan (i) trenbide-operadore gisa jarduten du (“trenbide-enpresa”, irailaren 29ko 38/2015 Legearen, Trenbide Sektorearen terminoen arabera), bidaiarien garraio-zerbitzua ematen duenez; eta ii) trenbide-azpiegituren administratzaile gisa ere bai, MBk Bilboko hiri trenbidearen mantentze-lana eta ustiapena egiten dituelako, eta horrez gain kontrol-, zirkulazio- eta segurtasun-sistema kudeatzen duelako».

Sektore-legeria hori Europako nahiz Espainiako hainbat arautan agertzen da, eta arau horien artean nabarmentzekoak dira uztailaren 30eko 16/1987 Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa, irailaren 29ko 38/2015 Legea, Trenbide Sektorearena, eta Trenbide Sektorearen Erregelamendua, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

Kontsultan azaltzen denez, METRO BILBAOk, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bitarteko propioa den aldetik, bere jarduera izaera bikoitzarekin egiten du, trenbide-enpresa gisa eta trenbide-azpiegituren kudeatzaile gisa. Hortik abiatuta, aztertu beharko da ea arau-esparru horretan lege-babesik dagoen egin nahi den datu pertsonalen tratamendurako. Hain zuzen ere, honako honetan datza tratamendu hori: metroaren erabiltzaileen identifikazio-datuak METRO BILBAOri komunikatzea, halako datuak udaltzaingoak edo Ertzaintzak bildu baditu METRO BILBAOk eskatuta.



Irailaren 29ko 38/2015 Legeak, Trenbide Sektorearenak, VII. tituluan zehapen-araubidea ezartzen du. Araubide horren mendean daude trenbide-garraioaren erabiltzaileen jokabide batzuk, arau-hauste gisa tipifikatzen direnak eta trenbide-sistemaren segurtasuna edo trenbideko garraioa ukitzen dutenak.

104. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan arautzen ditu tren-azpiegituren administratzaileek azpiegituren defentsa eta trafikoaren segurtasuna bermatze aldera eta, gainera, mota guztietako kalteak, trenbideen narriadura eta pertsonentzako arriskuak saihesteko betebeharrak betetze aldera dauzkaten zereginak:

«4. Tren-azpiegituren administratzaileei dagokie polizia-ahala gauzatzea trenbide-zirkulazioari eta azpiegituraren erabilerari eta defentsari dagokienez, trafikoaren segurtasuna bermatzeko eta hura ustiatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak, instalazioak eta mota guztietako baliabide materialak mantentzeko asmoz. Gainera, mota guztietako kalteak, trenbideen narriadura eta pertsonentzako arriskuak saihesteko betebeharrak betetzen direla kontrolatuko dute, baita trenbidearen ondoko lursailei dagokienez zehaztutako mugak II. tituluko III. kapituluan adierazten denari jarraikiz errespetatzen direla ere, horretarako dagozkien salaketak jarriz behar izanez gero.

*5. Sustapen Ministerioko eta Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentziako funtzionarioek eta trenbideko zirkulazioaren segurtasunari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko **tren-azpiegituren administratzaileek berariaz ahaldundutako langileek** agintaritzagenteen izaera izango dute beren zerbitzuko jardunetan edo horien ondoriozkoetan; horrenbestez, dagokien erantzukizuna eskatu ahal izango diete aurre egiten dutenei edo eraso egiten dutenei edo men egiten ez dietenei, egitez edo hitzez.*

Aurreko zenbakian adierazitako funtzioak betetzean, langile horiek beharrezkotzat jotzen duten informazio guztia eskatu ahal izango diete 3. zenbakian aipatzen diren pertsoneri, eta, hala badagokio, kasuan kasuko zehapen-espeditentea abiarazteko eskumena duen organoan salatuko dituzte bertan nahiz horien garapen-arauetan adierazten diren xedapenen aurkako jarrerak eta jarduketak.

*Halaber, **segurtasun-indar eta -kidegoen laguntza** behar izanez gero, dagokien gobernu-agintaritzaren bitartez **eskatu ahal izango dute**».*

Hala uler daiteke tren-azpiegituren administratzaileak berariaz ahaldundutako langileek trafikoaren segurtasuna eta azpiegituren eta instalazioen kontserbazioa bermatzeko eta, gainera, mota guztietako kalteak, trenbideen narriadura eta pertsonentzako arriskuak saihesteko ahalmen horiek izatea eta, behar izanez gero, segurtasun-indar eta -kidegoen laguntza eskatu ahal izatea. Eta ahalmen horiek zerikusia dute 38/2015 Legearen 104. artikuluko 4. apartatuan azaltzen den jarduera-eremuarekin.

Halaber, abenduaren 30eko 2387/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Trenbide Sektorearen Araudiak, 117. artikuluko 3. apartatuan, honako hau xedatzen du:

«4. [...]Interes Orokorreko Trenbide Sarean zerbitzuak ematen dituzten tren-enpresek eta, hala badagokio, trenbide-azpiegituren administratzaileek edo instalazioen ustiatzaileek egin beharko dute erabiltzaileen eta, oro har, hirugarrenen ohiko zaintza, Erregelamendu honetan ezarritako arauak betetzeari dagokionez; ikuskatzeko ahalmenak bete beharko dituzte eta antzemandako arau-hausteen berri eman beharko diete organo eskudunei».

Azaldu den hori kontuan hartuta uler daiteke lege-gaikuntza dagoela segurtasun-indar eta -kidegoek, metroaren erabiltzaileek egindako arau-hausteen artetik 38/2015 Legean bildutakoak gertatzeagatik METRO BILBAOk eskatuta, agertzen direnean, eta erabiltzaile



horien identifikazio-datuak bildu dituztenean, METRO BILBAOri laga diezazkioten, arau-hauste horien berri administrazio-organo eskudunei eman ahal izateko.

38/2015 Legearen VII. tituluan xedatzen da tren-zerbitzuaren erabiltzaileek zenbait arau-hauste egin ditzaketela, baina horietako bat ez da txartelik gabe edo garraio-titulu baliodunik gabe bidaiatzea. Aitzitik, azaroaren 39/2003 Legean, Trenbideen Sektoreari buruzkoan, 90.1 artikuluan arau-hauste arin gisa tipifikatzen zen hori. Trenbide Sektorearen Erregelamenduak berak 90.3 artikuluan xedatzen du kasu horretan balitekeela bidaiariak kanporatzea:

«Trenbide-enpresako langileek egiaztatzen badute bidaiari jakin bat txartelik gabe doala, bidaiari horri eskatuko diote prezioa ordain dezala eta, ordaindu ezean, trena zein geltokitan geratuta dagoen eta bertan trenetik irteteko eskatuko diote; bestela, trena bi geltokiren artean igarotzen ari bada, trena geratzen den lehenengo geltokitan irteteko eskatuko diote. Hori guztia ezertan galarazi gabe, behar bezala onartutako bidaiarien garraioko kontratazio-baldintza orokorretan xedatzen den zigorra aplikatuko da, baita Trenbide Sektorearen Legearen 90.1 artikuluan xedatzen dena ere, zehapen-prozedura instruitu ondoren».

Jokabide hori arau-hauste arin gisa tipifikatuta agertzen da uztailaren 30eko 16/1987 Legean, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoan, eta honela jasotzen da: bidaiari-garraioen erabiltzaileek urratzea zerbitzuaren erabilera babesteko nahikoa den garraio-titulu bat ez edukitzearen debekua.

Halaber, Metro Bilbaoren Kontratazio Baldintza Orokorretan (Metro Bilbaoren web orrian daude argitaratuta eta, diotenez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko apirilaren 2ko Aginduaren bidez onartu ziren), erabiltzaileek «bidaiak dirauen bitartean eta helmugako geltokitik irten arte garraio-txartel egokia eroan beharko dute».

Baldintza Orokor horien 15. artikulua 4. apartatuan xedatzen duenez, garraio-txartel egokirik ez duen erabiltzaileak gutxieneko pertzepzio bat ordaindu beharko die Metroko langileei eta, ordaintzeari uko eginez gero eta bere burua identifikatzeari uko eginez gero, baliteke ertzainek edo udaltzainek esku hartu behar izatea bera identifikatzeko; haiek salaketa jarriko dute administrazioko arau-haustearengatik zehapen-prozedura hasteko.

Kasu horretan uler daiteke, halaber, esku hartu duten ertzain edo udaltzainek ere lege-gaikuntza daukatela erabiltzaileen identifikazio-datuak komunikatzeko, administrazio-organo eskudunetan salaketa tramitatuko badute zehapen-prozedura bideratu ahal izateko.

III

METRO BILBAOren erabiltzaileen ekintza bat arau-hauste penala izan daitekeenean, Segurtasun Indar eta Kidegoek ekintza horietan parte hartu dutenen datu pertsonalen tratamendua egin behar badute, bete egin beharko da duela gutxi onartutako 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa (2021eko ekainaren 16tik indarrean dagoena), baldin eta fitxategi batean gordetako edo gorde beharreko datuen tratamendu hori arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko egiten bada, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxuok prebenitzeko ere (1. eta 2.1 artikulua).



7/2021 Lege Organikoaren 6. artikuluko 2. apartatuak, berriz, datu pertsonalen tratamendua Legean jasotakoez bestelako helburuetarako egitea arautzen du berriaz, eta zera xedatzen du:

«2. Agintaritza eskudunek bildutako datu pertsonalak ez dira tratatuko 1. artikuluan ezarritakoez bestelako helburuetarako, salbu eta tratamendu hori Europar Batasuneko Zuzenbidean edo Espainiako legerian baimenduta badago. Datu pertsonalak beste helburu batzuetarako tratatzen badira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa aplikatuko dira, non eta tratamendua Europar Batasuneko zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpoko jarduera baten barruan egiten ez den».

Eta 7/2021 Lege Organikoaren 6. artikuluko 3. apartatuak 1. artikuluan ezarritako helburuetarako egindako datu pertsonalen tratamendua arautzen du, datuak bildu zirenean zegoen helburua ez den beste helburu bat denean:

«3. Datu pertsonalak arduradun berberak edo beste batek tratatu ahalko ditu 1. artikuluan ezarritako helburuetarako, bildu zirenean zegoen helburua ez den beste helburu baterako izan arren, baldin eta honako bi inguruabar hauek gertatzen badira:

a) Tratamenduaren arduraduna datuak beste helburu horretarako tratatzeko eskuduna izatea, Europar Batasuneko Zuzenbidearen edo Espainiako legeriaren arabera.

a) Tratamendua beste helburu hori erdiesteko beharrezkoa eta proportzionala izatea, Europar Batasuneko Zuzenbidearen edo Espainiako legeriaren arabera.»

7/2021 Lege Organikoaren 11. artikuluan, bestalde, datu pertsonalen tratamendu ororen zilegitasunerako baldintza batzuk eskatzen dira, hau da:

- Datuok agintaritza eskudunek tratatzea (4. artikulua), besteak beste Segurtasun Indar eta Kidegoek;
- Beharrezkoak izatea 1. artikuluan azaldutako helburuetarako, hau da, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko egiten bada, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxuok prebenitzeko.
- Eta, beharrezkoa izanez gero, eta esparru partikular bakoitzean, berezitasunak zehaztuta egotea gutxieneko eduki batzuk bilduko dituen lege-mailako arau baten bidez.

Azaldutakoaren arabera, udaltzaingoak edo Ertzaintzak datuen tratamendua egiten badu arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxuok prebenitzeko ere, 7/2021 Lege Organikoan eskatzen diren zehaztapenak bete beharko ditu; horrenbestez, gure iritziz, ez litzateke egongo oinarri juridiko legitimatzaile nahikorik datu horiek METRO BILBAOri komunikatzeko.

IV

Aurreko gogoetan aipatzen den zigor-eremutik kanpo, zerbitzuaren erabiltzaile batek kalteak sortu baditu eta METRO BILBAOk hari erantzukizun zibila eskatu ahal badio, erabiltzaile horren datu pertsonalen tratamendua Erregelamendu Orokorren eta 3/2018 Lege Organikoaren mendean egongo da erabat.



Beraz, udaltzaingoak edo Ertzaintzak erabiltzaile horien datu pertsonalak METRO BILBAOri komunikatuz gero, lehenago aipatu den Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikulua babespean egin beharko da.

Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluko oinarri juridikoetako bat, datu pertsonalen tratamendua legitimatzen duena, interes legitimo bat egotea izango litzateke [6.1 f) artikulua], non eta interes legitimo horren eta ukituen oinarritzko eskubideen ponderazioa egindakoan interes horien gainean ez dauden oinarritzko eskubide horiek.

Baliteke interes legitimoa egotea, baldin eta gorabeheran parte hartu zuen pertsonaren nortasuna jakitea beharrezkoa bada eskatzailearen benetako babes judizialerako eskubidea bermatzeko (Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua).

V

Azkenik, nabarmendu behar da Erregelamendu Orokorrek ezartzen duen beste printzipio bat, datu pertsonalen tratamendu orotan errespetatu behar dena, «*datuak minimizatzearen printzipioa*» [5.1 c) artikulua], zeinaren bitartez datu pertsonalak egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak izango baitira, haien tratamenduaren helburuen arabera.

Horrek esan nahi du udaltzaingoak edo Ertzaintzak datuak komunikatzen dituen bakoitzean beharrezkoak edo ezinbestekoak diren gutxieneko datuak komunikatu beharko dituela, datuak zein helburutarako eskatu diren eta horretarako.

Gogoeta horiek egiten ditu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin zaion kontsultari buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 30a